

Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza emateko programa: II. Eranskina (TXEKIN)

Urtea: **2022** | Ekonomia Sustapena

Deskribapena:

Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea - **BIDERAGARRITASUN PLANA**

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

Pertsona onuradunak:

Gipuzkoan abian jarriko den enpresa bat sortzeko asmoa duten pertsonak, edozein dela ere hartzen duten forma juridikoa, eta gutxienez enplegu bat sortzeko aurreikuspena dutenak.

Diruz lagunduko diren jarduerak:

Pertsona edo talde sustatzaileari, ideia umotzreko eta Bideragarritasun planaren eratzeko prozesuan laguntzeko ekintzak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak homologatutako entitateen bidez

Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren tasa % 100eraino izango da, ezarritako moduluen sistematik eratortzen diren kostuak hartuz oinarri gisa.

Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lehiarik gabekoa: dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio guztia bete izanaren arabera

Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin

Bete behar diren epeak:

- **Proiektuen hasiera data: 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- **Eskaerak aurkezteko epea:**
 - 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean hasitako proiektuak: 2022ko uztailearen 21ean, 12:00etan.



- 2022ko uztailearen 1etik 2022ko urriaren 31ra bitartean hasitako proiektuetan, eskaera **proiektua hasi eta hurrengo hilabete naturalaren barruan egingo da.**

- **Proiektuak justifikatzeko epea:**

- 2022ko maiatzaren 31 baino lehen hasitako proiektuen kasuan: 2022ko uztailearen 27a baino lehen.
- 2022ko ekainaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean hasitako proiektuen kasuan: 2022ko urriaren 31 baino lehen.
- 2022ko irailaren 1etik aurrera hasitako proiektuen kasuan: 2023ko apirilaren 1a baino lehen.

Araudi aplikagarria

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia. Programa hori Diputatuaren Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen \(2022ko uztailearen 4koa GAO 126 zk\).](#)

Kofinantzaketa

Programak EGFen (Europako Gizarte Funtsa) kofinantzaketa komunitarioa (% 50) du “EGF zure etorkizunean inbertitzen du goiburuz

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitza/txekin>
- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943–112252
- Kudeaketa Administrazioa: 943–112218

Emaila: txekin-2021@gipuzkoa.eus